

GRADU-AMAIERAKO LANAREN (GRAL) ESKULIBURUA

GRALen Batzordean onartua, 2024ko urrian onartua

Edukiaren aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Matrikulazioa eta deialdiak	2
3. Gradu-Amaierako Lanaren proposamena	2
4. Gradu-Amaierako Lanen Batzordea	3
5. Gradu-Amaierako Lanaren zuzendariak	4
6. Gradu-amaierako lana egiteko prozesua	5
Garatu beharreko gaitasunak:	5
Ikaskuntzaren emaitzak	6
GRALaren baldintza formalak	6
7. GrALen tipologiak	9
8. GRALaren aurkezpena eta defentsa	9
Lanak entregatzea	9
Epaimahai ebaluatzailea osatzea	9
Gradu Amaierako Lanen defentsa	10
Gradu-Amaierako Lanen ebaluazioa	10
9. Gradu-Amaierako Lanak artxibatzea eta kontsultatzea	11
10. Analisia eta hobekuntza	12
11. Azken xedapenak	12
1. ERANSKINA	15
2. ERANSKINA	17
3. ERANSKINA	19
4. ERANSKINA	21
5. ERANSKINA	23

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasketa-planaren amaierako fasean egin behar da, eta bideratua dago tituluarekin lotutako gaitasunen ebaluaziora. Ikasleak banakako lan bat egin eta defendatu beharko du, tutoretzapekoa, zientifikoa, integratzailea eta Erizaintzako Graduko irakaskuntza aldian zehar eskuratutako ezagutzak indartuko dituena.

Eskuliburu honen helburua da 2015eko apirilaren 13an EHAAn argitaratutako arautegia garatzea eta zehaztea, Erizaintzako Graduko egoera berezira egokituz. Ikasketa-planean laugarren mailako nahitaezko lantzat jotzen da GRALa eta 6 ECTS kredituko eskola-orduak (lan pertsonaleko 150 ordu) ditu.

2. Matrikulazioa eta deialdiak

GRALaren kudeaketa-lana GAUR plataformaren bitartez egingo da.

Ikasleak ezingo du GRALaren matrikula egin, Graduko gainerako irakasgaien matrikula egina ez badu. GRALaren matrikula ohiko matrikulazio-aldian egin beharko da.

Matrikulak bi deialdi ofizialetarako eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean.

3. Gradu-Amaierako Lanaren proposamena

Gradu-Amaierako Lanean jatorrizko proiektu, memoria edo azterlan bat gauzatu beharko du ikasle bakoitzak banakako jardunean zuzendari baten edo gehiagoren gainbegiratze-lanarekin. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Erizaintzako Graduko ikaskuntza-aldian zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

Matrikula egin ondoren, fakultateak hiru epe jarriko ditu tutoreen esleipena egiteko. Lehen epea 3. mailako ikasleen eta arduraldi osoan diren GRALeko zuzendariaren arteko borondatezko akordioa dagoen GRALetarako izango da. Borondatezko akordiozko GRALek ezingo dute zuzendariaren ohiko esleipenaren erdia baino gehiago izan. Zuzendariaren ardura izango da GRALaren koordinatzaileari horren berri ematea, eta lanen ohiko esleipena baino 15 egun lehenago helarazi

beharko dio informazio hori.

Bigarren epean irakasleek proposatutako gaietako bat hautatu ahal izango du ikasleak GRALeko gai gisa, edo bestela, ikasleak tutorea aukeratuko du eta gai zehatz bat proposatu.

Ikasleak GRALaren zati bat edo oso-osorik egin ahal izango du UPV/EHUn ez den beste erakunderen batean praktika-hitzarmenen edo mugikortasun-hitzarmenen esparruan.

Hirugarren epean, ikasleek tutoreen aukeraketa egin ondoren, GRALen Batzordeak zuzendari bat, eta hala badagokio, zuzendarikide bat esleituko di(zki)o ikasle bakoitzari. Esleipen-ordena notaren batezbestekoaren arabera izango da, eta ikaslearen lehenengo aukera agortuta baldin badago, ikaslearen hurrengo aukerekin jarraituko da esleipena, eta horrela hurrenez hurren. Zuzendariak orientabidea eskainiko dio lana gauzatzean, eta hark erakutsitako lehentasunei erreparatuz.

4. Gradu-Amaierako Lanen Batzordea

Honako hauek osatuko dute GRALen Batzordea:

- GRALen koordinatzailea.
- Erizaintza II. Saileko zuzendaria edo eskuordetutako pertsona.
- 3 IIP, zuzendari direnen artean.
- AZPko langile 1.
- Ikasle 1.

GRALen Batzordeak bi urteko iraupena izango du.

Hauek dira GRALen Batzordearen egitekoak:

1. Ikasleei lanari buruzko informazioa ematea: helburuak, lanarekin lotutako gaitasunak, aurreikusitako jarduerak eta ebaluazioa.
2. Ikasleei GRALerako lana eta zuzendariak esleitzea.
3. GRALak ebaluatuko dituzten epaimahaiak izendatzea.
4. Lanak egitean hautemandako gorabehera akademikoak ebaztea.
5. Urteko Memoria egitea.

6. Ikastegiko Batzarrak bere eskumenen eremuan esleitzen dizkion gainerako eginkizun guztiak.

5. Gradu-Amaierako Lanaren zuzendariak

Zuzendariak izango dira beren irakaskuntza-esleipenean zeregin hori txertatuta dutenak. GRALen zuzendariak edo zuzendarikideak izan ahalko dira landu beharreko gaien espezialistak diren profesionalak, UPV/EHUren GRALa Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegiaren 4.4. artikulua arabera.

UPV/EHU indarrean dagoen arautegiarekin bat etorruta (2009ko azaroaren 19ko Gobernu Kontseilua) 6 kredituko GRAL baten zuzendaritza-lanak irakats-betebeharreko 0,25 kreditu balio du gidatutako lan bakoitzeko. UPV/EHUK, gehienez ere, 6 kreditu aitortuko ditu lanak zuzentzeagatik.

Hauek dira GRALen zuzendari baten egitekoak:

1. GRALaren jarraipenaren banakako plangintza gainbegiratzea.
2. Lanari lotutako gaitasunak eskuratzeari jarraipena egitea eta garapenean orientabidea eskaintzea.
3. GRALaren prozesuaren jarraipen-txostena betetzea.

Ikasleak, gutxienez, hiru tutoretza izan beharko ditu (ikus 1. taula):

- Lehenengo tutoretza: lana garatzen hasi aurretik egingo da; bertan, ikasleak modu laburtuan aurkeztuko du egingo duen lana, aurreikusitako metodologiaren deskribapen txiki batekin eta hasierako bibliografia edo iturri dokumentalekin.
- Bigarren tutoretza: ikasleak lana nola garatu duen aurkeztuko du, eta bidean izan dituen zailtasunen berri emango du. Zuzendariak lana gainbegiratuko du, eta lana behar bezala amaitzeko egokiak diren hobekuntza- eta zuzenketa-neurriak gomendatuko dizkio ikasleari.
- Hirugarren tutoretza: ikasleak lana entregatuko du, eta zuzendariak prozesuari egindako jarraipen-txostena osatuko du (I. ERANSKINA).

1. taula: tutoretza bakoitzaren egitekoa

LEHENENGO TUTORETZA		BIGARREN TUTORETZA		HIRUGARREN TUTORETZA	
Ikaslea	Zuzendaria	Ikaslea	Zuzendaria	Ikaslea	Zuzendaria
Gaiaren aurkezpena eta lanaren lehenengo urratsak.	Esparrua argitzea. Lanerako gidalerroak ezartzea.	Lanaren garapenaren aurkezpena.	Gainbegiratzea eta ondo amaitzeko gomendioak.	Lana aurkeztea.	Prozesuaren jarraipen-txostena. Errubrika betetzea.

Zuzendari bakoitzak aztertuko du ea baden aukerarik prozesuaren hasieran tutoretza bateratu bat egiteko, bertan jarraitu beharreko urratsak azaltzeko.

Ikaskuntza-zerbitzuaren proiektu berritzaileen kasuan parte hartzen duten proiektuaren beraren garapenari egokituta gauzatuko dira tutoretzak.

Mugikortasuneko ikasleen kasuan zuzendariak haiekin xedatuko ditu lana egiteko bideak eta epeak.

6. Gradu-amaierako lana egiteko prozesua

GRALa jatorrizko lan monografiko gisa aurkeztuko da, eta eduki espezifikoak bilduko ditu, non Erizaintzaren arloak autonomia, kontrola eta erantzukizuna izango duen. Plagioa hautemanetz gero, epaimahaiak Ikasleen Arautegiaren 67.2. artikuluan xedatutakoa aplikatuko du¹.

Ahozko aurkezpenaren aurretik, zuzendariak jarraipen-txostena igo beharko du GAURera.

GRALak prestakuntza-ekintza hauek izango ditu bere baitan:

- Banakako tutoretzak (0,5 ECTS).
- Lana egitea eta entregatzea (4 ECTS).
- Azalpena eta defentsa (1,5 ECTS).

Garatu beharreko gaitasunak:

Hauek izango dira garatu beharreko gaitasunak:

1. Gradua egin bitartean eskuratutako gaitasunak integratzea, ebidentzia zientifikoan

¹**Ikasleen arautegiko 67.2 artikulua:** AHOZKO PROBAK ETA PROBAK EGITEKO ERREGIMENA. Ikasleak iruzur egingo balu ariketaren batean, «gutxiegi» kalifikazioa izango luke ariketa horretan, izan litzakeen bestelako erantzukizunez gain.

oinarritutako eta profil profesionalari lotutako lan baten bidez (% 60).

2. Ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasunak erakustea, erizaintzako diziplinari lotutako eta zorrotasun akademiko egindako lan baten bidez (% 40).

Ikaskuntzaren emaitzak

Hauek dira ikaskuntzaren emaitzak:

- Terminologia egokia erabiltzen du, erizaintzako diziplinaren kontzeptuak deskribatzeko.
- Osasun Zientziei lotutako informazio-iturri eta teknologia egokiak erabiltzen ditu.
- Egituratutako eta zorrotasun akademiko idatzitako memoria egin du, eta bertan txertatu ditu graduan eskuratutako gaitasunak.
- Argudiaketaren bidezko arrazoibide kritikoa erakutsi du, bai idatzizko memorian bai ahozko defentsan.
- Informazioa argitasunez eta jario handiz ematen du, ahozko eta ez-ahozko komunikazioa ongi kudeatuz eta erabiliz.

GRALaren baldintza formalak

Nahitaezkoa da GRALaren baldintza formalak betetzea, bai eta morfologikoak, ortografikoak eta sintaktikoak ere. Baldintza horiek bete ezean, epaimahaiak lana suspentsotzat jo ahal izango du eta ezingo da haren defentsa egin.

Lan mota guztiek atal hauek izan beharko dituzte: azala (ikus 2. eranskina), erantzukizun-oharra (4. eranskina) laburpena (300 hitz gehienez ere), laburpenaren ondoren 3-6 hitz gako, lanaren aurkibidea edo aurkibideak (taulek, irudiek eta grafikoek ere aurkibidea behar dute), siglen zerrenda eta adierazpena (beharrezkoa den kasuetan), lanaren muina (lan mota bakoitzari dagozkion atal guztiekin eta ondoren banan-banan aipatuko diren zehaztasunekin), 50 bibliografia-erreferentzia (gehienez), eta, beharrezkoa den kasuetan, eranskinak (aparte jarriko direnak, orri bakoitian hasita).

- Errebisio modalitatean gomendatzen da GRALaren muina, gehienez, 4.500 hitzekoa izatea (azala, laburpena, aurkibidea(k), siglen zerrenda, bibliografia eta eranskinak kontuan izan gabe). Taulei, irudiei eta grafikoei dagokienez, gehienez, 5 egongo dira (mota guztiak barne).
- GRALak Osasunaren sustapena / Osasun-heziketa proiektuak direnean, gomendatzen da hitz-

kopurua, gehienez, 5.000 hitzekoa izatea (azala, laburpena, aurkibidea(k), siglen zerrenda, bibliografia eta eranskinak kontuan izan gabe). Taulei, irudiei eta grafikoei dagokienez, gehienez, 10 egongo dira (mota guztiak barne).

- Laugarren mailako ikasleentzat eskaintzen den ikaskuntza-zerbitzuaren proiektu berritzaileei dagozkien GRALek (BPSOak, eta Kanpoko Elkarteekin egindakoak), berriz, gomendatzen da, gehienez, 4.000 hitz izatea (azala, laburpena, aurkibidea(k), siglen zerrenda, bibliografia eta eranskinak kontuan izan gabe). Taulei, irudiei eta grafikoei dagokienez, gehienez, 10 egongo dira (mota guztiak barne).
- Kasu klinikoen kasuan gomendatzen da hitz-kopurua, gehienez, 4.000 hitzekoa izatea (azala, laburpena, aurkibidea(k), siglen zerrenda, bibliografia eta eranskinak kontuan izan gabe). Taulei, irudiei eta grafikoei dagokienez, gehienez, 10 egongo dira (mota guztiak barne).
- Ikerketa-proiektuen kasuan gomendatzen da hitz-kopurua, gehienez, 4.000 hitzekoa izatea (azala, laburpena, aurkibidea(k), siglen zerrenda, bibliografia eta eranskinak kontuan izan gabe). Taulei, irudiei eta grafikoei dagokienez, gehienez, 10 egongo dira (mota guztiak barne).

2. taula: baldintza formalen laburpena

	Berrikuspen bibliografikoa	Osasun-heziketa	Proiektu berritzaileak (BPSO, Kanpoko elkarteak), kasu klinikoak eta ikerketa-proiektuak
Azala	2. eranskina	2. eranskina	2. eranskina
Laburpena	300 hitz, gehienez	300 hitz, gehienez	300 hitz, gehienez
Hitz gakoak	3-6 hitz	3-6 hitz	3-6 hitz
Aurkibidea(k)	Muinarena, taulena, grafikoena eta irudiena	Muinarena, taulena, grafikoena eta irudiena	Muinarena, taulena, grafikoena eta irudiena
Siglen zerrenda	Beharrezko bada	Beharrezko bada	Beharrezko bada
Lanaren muina (gomendioa)	4.500 hitz, gehienez	5.000 hitz, gehienez	4.000 hitz, gehienez
Bibliografia	50 aipu, gehienez	50 aipu, gehienez	50 aipu, gehienez
Eranskinak	Aparteko orrian	Aparteko orrian	Aparteko orrian

	hasi	hasi	hasi
--	------	------	------

- Formatua, berriz, honelakoa izango da:
 - Letra tipoa eta tamaina: Arial (11 pt) edo Times New Roman (12 pt), edo UPV/EHUko letrak: Ehu Serif (11 pt), baldin eta dokumentua euskaraz idatzita baldin badago, eta Ehu Sans (11 pt), baldin eta dokumentua gaztelaniaz idatzita badago².
 - Lerroartea: 1,5.
 - Koskak: goikoa eta behekoa 2,5 cm; eskuinekoa eta ezkerrekoa, 3 cm.
 - Orrialde-zenbakia orrialdearen erdian eta oinean (“1.” zenbakia “Sarrera” atalari dagokio).
 - Testuaren lerrokatzea: justifikatua.
- Erabilitako laburdurak zehaztu egin beharko dira testuan agertzen diren lehen aldian.
- Oin-oharrek espazio sinplea eduki behar dute.
- Grafikoak, taulak eta irudiak aipatutako ordenan zenbakitu beharko dira: 1. taula, 2. taula... Izenburua gainean jarriko zaie taulei, eta grafiko edo irudiei oinean. Taula eta Grafiko edo Irudien beheko partean jarriko dira datuak ulertzeko argibideak eta hitzen laburdurak. Argazkiak eta irudiak (ilustrazioak) sartu ahal izango dira, baina bereizmen minimo bat ziurtatu behar da (300 dpi). Zentratuta joango dira eta oinak taulen formatu bera izango du, “taula” jarri beharrean “irudia” jarritz.
- Azalak dagokion eranskinean xedatutako baldintzetara egokitu beharko du (2. ERANSKINA). Anagramak azalean baino ez dira agertuko.
- GRAL orok eduki beharko ditu, aurkibidearen aurretik, azal bat eta lanaren laburpena bat (300 hitz gehienez). Nahitaezkoa da laburpena adierazitako luzapenera egokitzea, eta lanaren atal guztiak jasotzea, eztabaida eta bibliografia izan ezik; hala egin ezean, epaimahaiak erabaki dezake lana ez balioestea.
- Bibliografia:
 - Vancouver edo APA arauen arabera egingo da.

² UPV/EHUk proposatutako tipografia erabili nahi izanez gero, web-orrialde honetatik jaits daiteke: <https://www.ehu.eus/es/web/gizaratea/ehu-tipografia>

- Erreferentzia bibliografikoek behar bezala erreferentziaturik egon beharko dute.
- Testuetako aipuek xedatutako ereduari egokitutakoak izan beharko dute.

7. GrALen tipologiak

Gradu Amaierako lanak hainbat tipologia izan ditzake: berrikuspen bibliografikoa, Osasunaren sustapenerako proiektuak, proiektu bereziak (BPSO edo kanpoko elkarteekin), kasu klinikoak, eta ikerketa-proiektuak. Bakoitzari dagokion gida zehatza 5. ERANSKINEAN dago.

Plan zaindu bat osatzea helburu duten kasu-azterketek edota landako datuak jasotzen dituztenek, UPV/EHUko Etika Batzordearen oniritzia izan beharko dute, eta, horrenbestez, prozesua gehiegi luzatzen da. Hala, gaixoaren edo/eta profesionalaren informazioa behar duen lanak honako hauek eduki bildu beharko ditu, gutxienez:

- Baimen informatua
- Konfidentziasun-konpromisoa
- Dagokion ikastegiari jakinaraztea (zuzendariak koordinatzaileari jakinaraziko dio, eta hark ikastegiari)

Landa-datuak jasotzen dituzten eta Etika Batzordearen oniritzia ez duten lanak ezin izango dira ADDI publikoan argitaratu.

8. GRALaren aurkezpena eta defentsa

Lanak entregatzea

Ikasleak lehenik eta behin defentsa-eskaera egingo du GAUREn.

Tutoreak defentsa onartuko du eta prozesuaren jarraipen-txostena erantsiko du GAUR plataforman.

Ondoren, ikasleak ADDIn igo beharko du GRALa aurretik adierazitako egunean.

Epaimahaiak ADDItik jasoko du ebaluatu beharreko GrALa.

Epaimahai ebaluatzailea osatzea

Epaimahaia Gipuzkoako Ataleko Erizaintza Eskolako zeinahi irakasle-ikertzailek osatuta egongo da, lanaren tutoreak izan ezik. Pertsona bakoitza epaimahai bateko edo gehiagoko kide izan ahalko da, betiere, bere kontratu-denborarekiko modu proportzionalan. Epaimahai bakoitza hiru kidek osatuko

dute. Ordezkoa UPV/EHUren arautegiaren 5.3 artikulua arabera izendatuko da. Epaimahaia osatzean hiru kideek egon behar dute: epaimahaiburuak, idazkariak eta kideak.

Bestalde, epaimahai ebaluatzaileak bi hizkuntza ofizialetan osatuko direla bermatuko da.

GRALen Batzordeak epaimahaiak osatu ostean, GRALaren koordinatzailea izango da horiek jakinarazteaz eta argitarazteaz arduratuko dena.

Gradu Amaierako Lanen defentsa

GRALa aurkeztu eta ebaluatu ahal izango da ikaslea Graduako titulua eskuratzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatu denean.

Ikasle bakoitzak **10 minutu** izango ditu lana ahoz defendatzeko, eta tarte horretan bere lanaren atal guztiak azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galderei, argibide-eskaerei, iruzkinei eta iradokizunei erantzun beharko die.

Azalpena publikoa izango da, eta bi hizkuntza ofizialen artean ikasleak matrikulan aukeratutako hizkuntzan egingo da.

Ikasleren batek bere defentsa grabatzea nahi izanez gero, hala jakinarazi beharko du lana entregatzean. Grabazioak zentro barruan bakarrik erabiliko dira.

Gradu-Amaierako Lanen ebaluazioa

Lan bakoitza zuzendariak eta epaimahaiak ebaluatuko dute. Zuzendariak lana egitean ikasleak izandako prozesua ebaluatuko du eta nota orokorraren % 40ko edo % 70eko pisua izango du, lan-motaren arabera. Zehazki horretarako deitutako eta hiru kidez osaturiko epaimahaiak, idatzizko lana eta ahozko defentsa ebaluatuko ditu eta nota orokorraren % 60ko edo % 30eko pisua izango du, lan motaren arabera.

GRALaren zuzendariak ez du parte hartuko epaimahaian, eta ezingo du parte hartu zuzendu dituen lanen deliberamendu pribatuetan.

Lana beste zeinahi irakasgai bezala kalifikatuko da, GRALen Arautegiaren 7.3. artikuluaekin bat etorruta.

Nota jartzean, GRAL mota bakoitzerako txantiloak espezifikoez xedatutako argibideei jarraitu beharko zaie.

Defentsa amaitzean, epaimahaiko idazkaria arduratuko da dagokion inprimakian GRALaren kalifikazioa betetzeaz. Defentsa amaitzean, idazkariak NAN zenbakien ordenari jarraituz argitaratuko ditu emaitzak, dagokion oholean (**3. ERANSKINA**). Idazkariaren ardura izango da koordinatzaileari ebaluazio-txostena egunean bertan helaraztea.

Berrikuspena egin, eta ikasleak lana gainditzen ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiko idazkariak, ebaluazioa berriro egiteko. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

Ikaslea ez badago ados lortutako kalifikazioarekin, GRALa Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegiaren 7.4. artikulua hartuko da aintzat.

GRALen ebaluazioa eta kalifikazioa horretarako diseinatutako txantiloien bitartez egingo da.

Behin, epaimahai guztiak bukatzen direnean GRALen koordinatzaileak kalifikazioak GAUREn sartuko ditu. Hiru eguneko epea pasa ondoren berrikuskatze ofiziala egingo da. Horretarako, epaimahaietan parte hartutako irakasle guztiak ezarritako egunean eta orduan eskuragarri egon beharko dira.

Ohorezko matrikula GRALen Batzordeak definitutako irizpideen arabera emango zaio ikasleari, eta irizpide horiek epaimahaien osaerarekin batera argitaratuko dira.

Bederatzi edo kalifikazio handiagoko GRALak UPV/EHUren ADDI gordailuan argitaratu ahal izango dira, baldin eta idatzizkoan 8tik gorako nota atera badu eta dagozkion baldintza etikoak betetzen baditu.

9. Gradu-Amaierako Lanak artxibatzea eta kontsultatzea

GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, gradu-amaierako lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

10. Analisia eta hobekuntza

Ikasturtea amaitzen denean, GRALen koordinatzaileak memoria bat aurkeztu beharko dio Ikastegiko GRALen Batzordeari. Memoria horrek GRALen garapenean garrantzitsuak izan diren alderdiak bildu beharko ditu; gutxienez, honako hauek izan beharko ditu:

- Izena emandako GRALen kopurua
- Aurkeztutako GRALen kopurua
- Epaimahai ebaluatzaileen osaera
- Kalifikazioen laburpena
- Izandako gorabeherak
- Oharrak
- Hobetu beharreko alderdiak

Txosten horren eraginez, GRALen Batzordeak GRALaren eskuliburuan aldaketak egitea proposa dezake Ikastegiko Batzarrean.

Nola txostena, hala batzordearen proposamenak publikoak izango dira.

11. Azken xedapenak

Eskuliburu hau indarrean egongo da Ataleko Batzarrean onartzen denetik aurrera; hala, bertako xedapenak lotesleak izango dira. Eta Ataleko Batzarrak onartutako aldaketak izan ditzake egoerak horrela eskatzen duenean. GRALeko koordinatzailea izango da aldaketa horiek irakasle zein ikasleei informatzearen arduraduna.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

DONOSTIAKO ATALA
SECCIÓN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

1. ERANSKINA

GRALeko ZUZENDARIAREN JARRAIPEN-TXOSTENA

Ikaslearen izen-abizenak.....NAN.....

GRALaren izenburua.....

GRALaren zuzendaria.....

PROZESUAREN JARRAIPENA:

PROZESUAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA:

Irakaslearen iritziz:

Tutoretza-prozesuaren amaierako ebaluazioa da:.....

Sinadura

Data.....

2. ERANSKINA

AZALA

Gradu Amaierako Lana
Erizaintzako Gradua

Lanaren izenburua

Lanaren azpтитulua

Egilea:
XXX XXX
Zuzendaria:
XXX

3. ERANSKINA

GRALen BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA

GRALen epaimahaia, zenbakiduna, honako irakasle hauek osatu dute:

Epaimahaiburua:jaun/andrea

Idazkaria:jaun/andrea

Epaimahaikidea:jaun/andrea

Epaimahaiak kalifikazio hauek jarri dizkie GRALei, NAN zenbakiaren hurrenkerari jarraituz

IKASLEAREN NANa	NOTA

Donostian, 20..... (e)ko(a)ren(e)(a)n

GRALen epaimahaiko idazkariaren sinadura

Berrikuspen-data:

4. ERANSKINA

ERANTZUKIZUN OHARRA (Erizaintzako Gradua, Donostia, UPV/EHU)

Dokumentu hau ikasle baten Gradu Amaierako Lanaren emaitza da, eta egilea da lanaren edukiaren arduraduna.

Beraz, lan akademiko honek epaimahaiak antzemandako akatsak izan ditzake, eta baliteke edizio honetan egileak zuzendu ez izana.

Lan hauek, prozesuarekin eta defentsarekin batera, 5-10 puntuko nota izango dute, eta, beraz, lanen kalitatea eta akatsen kopurua oso desberdinak dira lan batzuen eta besteen artean.

Euskal Herriko Unibertsitatea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Gipuzkoako atala), Gradu Amaierako Lanen Epaimahaiko kideak eta irakasle tutorea ez dira Gradu Amaierako Lan honen azken edukiaren erantzule.

5. ERANSKINA

5.1. BERRIKUSPEN BIBLIOGRAFIKOA

Ebidentzia zientifikoak (jardunbide klinikoko gidak, azterketa sistematikoak, artikulua originalak, etab.) aztertuko dira.

Izenburua: modu argian eta zehatzean laburtu beharko du lanaren edukia. Hitz zehaztugabeak saihestuko dira izenburuan, eta ahalik eta laburrena, argiena eta informatzaileena izango da. Izenburuan laburtzapenak saihestu behar dira.

Laburpena: ondo sintetizatuko ditu lanaren nondik norakoak eta behar dituen atal guztiak izango ditu: sarrera, helburua, metodologia, emaitzak eta ondorioak. Gehienez 300 hitz izan beharko ditu. Laburpenaren ondoren hitz gakoak jarriko dira, lana idatzita dagoen hizkuntzan (3-6 hitz gako)

Sarrera: landutako gaia testuinguruan kokatuko du eta zergatik den garrantzitsua aipatuko da. Adibidez, aipatzen ahal dira prebalentzia, erlazioetatutako aldagaiak, etab.

Gaur egun gaiari buruz dagoen ezagutza laburbilduko du.

Helburuaren garrantzia justifikatuko du, eskueran dagoen ebidentzian oinarrituta.

Helburua: planteatutako arazoa konpontzera bideratuta egongo da, eta neurgarria eta ebalagarria izango da.

Helburuak aztertuko diren aldagai nagusiak zehaztu beharko ditu. Helburu zehatzak planteatuz gero, helburu orokorraren baitan sartuta egon beharko dute, eta azertu beharreko alderdi desberdinak programatzeko balioko dute.

Metodologia: zientzia-artikuluak bilatzeko estrategia zehatza izango da, eta planteatutako helbururako egokia.

Planteatutako ikerketa-galdera helburuarekin bat etorriko da. Egituraren bat erabiliz gero (PIO, ECLIPSE, SPICE, SPC), terminoak (deskribatzaileak) egokiak izan beharko dute lanaren garapenerako.

Metodologian ondokoen berri eman beharko da: datu-baseak, hitz gakoak, bilaketa-bidea (ahal dela, bakarra eta bera datu-base guztietan), iragazkiak eta barneratze- eta kanporatze-irizpideak.

Aurkitutako artikulua egokiak izan beharko dute helburuei erantzuteko.

Bilaketa-prozesua eta egindako urrats guztiak era argian eta zehatz-mehatz azalduko dira, taulen eta testuaren bitartez. Bilaketa-prozesua era argian ulertzeko sortuko den taula emaitzetan jarri behar da eta ez eranskinetan.

Metodologian aipatutako lanak izango dira emaitzak idazteko erabiliko direnak.

Emaitzak: lortutako emaitzak planteatutako helburuarekin (eta, baleude, helburu zehatzekin) erabat lotuta egon beharko dute. Emaitzetako testua bibliografiatik ateratakoa izango da, eta interpretaziorik gabea. Kontuan izan emaitzen helburua ez dela lortutako artikulua banan-banan eta bakoitza bere aldetik deskribatzea.

Metodologian lortutako lanak erabiliko dira emaitzak idazteko.

Aukerakoa (eranskinetan): analisia errazten dut bilaketa bibliografikoan aukeratutako azterlanen emaitza nagusiak biltzen dituen taulak (egilea, tokia, urtea, ikerketa-mota, emaitza nagusiak, ...).

Eztabaida: lehenengo paragrafoan planteatutako helburua eta aurkikuntza nagusiak agertuko dira.

Bilaketan lortutako artikuluen emaitzak haien artean konparatuko dira eta diferentziak aipatuko dira. Horrez gain, lortutako emaitzak beste lan batzuetako emaitzekin konpara daitezke (metodologiaren atalean agertu ez direnak) eta aldeak azaldu.

Lanaren indarguneak eta mugak nabarmenduko dira

Eztabaidaren amaieran lortutako emaitzen eta ikasleak ezagutzen duen errealitatearen arteko lotura egingo da.

Aukerakoa izango da bilaketa-estrategian agertu ez den informazioa garatzea (erizaintzarekin lotura duena).

Garapen iraunkorrerako helburuak: egindako gradu-amaierako lanak garapen iraunkorrerako zein helburuekin edo helburuekin duen zerikusia deskribatu eta argudiatuko da. Atal honek 200 hitz inguru izan behar ditu.

Ondorioak: lanean planteatutako helburu orokorrari (edo helburu zehatzei) erantzungo diete, labur

eta era argian, eta emaitzetan nahiz eztabaidan oinarrituta egongo da. Ondorioen atalean ez da bibliografiarik jarriko.

Bibliografia: erreferentzia bibliografikoak eguneratuak eta egiaztagarriak izango dira. Bai emaitzetan eta bai sarreran eta eztabaidan erabilitako artikuluen erreferentziak jarri beharko dira. Erreferentzia bibliografikoak egiteko Vancouver edo APA estiloak erabiliko dira.

Bibliografian agertzen diren erreferentzia guztiek egon behar dute lanean aipatuta era egokian, aukeratutako estiloaren arabera.

Gomendatzen da gutxienez 15 erreferentzia bibliografiko erabiltzea, eta gehienez 30.

5.2. OSASUNERAKO HEZKUNTZA-PROGRAMA

Osasunerako Hezkuntza-Programa (OHezP)

Izenburua: modu argian eta zehatzean laburtu beharko du lanaren edukia. Hitz zehaztugabeak saihestuko dira izenburuan, eta ahalik eta laburrena, argiena eta informatzaileena izango da. Izenburuan laburtzapenak saihestu behar dira.

Izenburuan, Osasunerako Hezkuntza-Programaren diana-taldea eta jorratutako gaia aipatu behar dira.

Laburpena: ondo sintetizatuko ditu lanaren nondik norakoak eta behar dituen atal guztiak izango ditu: sarrera, helburuak, metodologia, eta Programaren garatzeko atalak. Gehienez 300 hitz izan beharko ditu. Laburpenaren ondoren hitz gakoak jarriko dira, lana idatzita dagoen hizkuntzan (3-6 hitz gako)

Sarrera: landutako gaia testuinguruan kokatuko da eta labur azalduko da zergatik den garrantzitsua. Aztertu beharreko osasun-arazoa/-gaia definitu eta aurkeztuko da.

Helburua: GrA-laren helburu orokorra ezarriko da.

Metodologia: OHez Programa diseinatzeko erabilitako iturriak aurkeztuko dira. Bilaketa-estrategian egindako urratsak azalduko dira, eta bilaketa horren emaitzak aurkeztuko dira.

OHez programaren garapena

- Justifikazioa

Hezkuntzako esku-hartzearen egokitasuna argudiatuko da bilaketaren emaitzetan oinarrituta: garrantzia, faktore erabakigarriak, komunitateko hainbat sektoretatik esku hartzeko dauden gaitasunak eta aukerak, proiektuaren oinarri diren aurrekariak, tokiko eragina eta, esku-hartzerik egin ezean, gaiaren bilakaera, eta esku-hartzearen eraginkortasuna babesten duten azterlanen, iritzien eta esperientzien deskribapena.

Programa aplikatzean lor daitezkeen onurak deskribatuko dira.

Diana-taldea deskribatuko da.

- Programaren helburuak

Diana-taldeak lortu beharreko helburu pedagogikoak (nagusia eta bigarren mailakoak)

behar bezala formulatuko dira. Helburuek neurgarriak eta aldi jakin batean lortzeko modukoak izan beharko dute.

- Jardueren programazioa

Hezkuntza-edukiak, estrategia metodologikoak eta beharrezko baliabideak (baliabide materialak, antolakuntzakoak eta giza baliabideak) era egokian eta koherentziaz deskribatuko dira.

- Ebaluazioaren plangintza:

Era aiposean eta egokian aurkeztuko dira programaren dimentsioak ebaluatzeko tresnak (egitura, prozesua eta emaitzak), denboralizazioa eta inplementazioa barne.

GrALaren ekarpena: gaiari buruzko ideia gogoetatsuak behar bezala eta era argian azalduko dira, adibidez: adierazi zer ekarpen egiten dion GrAL honek lehendik dagoen ezagutzari; adierazi zer inplikazio dituen GrAL honek asistentzia-praktikan, ikerketan eta politiketan; eta abar.

GrAL honek ikaslearen ezagutzari zer ekarri dion deskribatuko da eta horri buruz hausnartuko da (lan-tipologia honek zer ekarri dion eta lan-tipologia horrekin zer ikasi duela uste duenari buruz hausnartu ahal izango da).

Azterketa-lerro berriak proposatu ahal izango dira.

Garapen iraunkorrerako helburuak: egindako gradu-amaierako lanak garapen iraunkorrerako zein helbururekin edo helburuekin duen zerikusia deskribatu eta argudiatuko da. Atal honek 200 hitz inguru izan behar ditu.

Bibliografia: erreferentzia bibliografikoak eguneratuak eta egiaztagarriak izango dira. Bai lanaren garapenean eta bai sarreran erabilitako artikuluen erreferentziak jarri beharko dira. Erreferentzia bibliografikoak egiteko Vancouver edo APA estiloak erabiliko dira.

Bibliografian agertzen diren erreferentzia guztiek egon behar dute lanean aipatuta era egokian, aukeratutako estiloaren arabera.

Gomendatzen da gutxienez 15 erreferentzia bibliografiko erabiltzea, eta gehienez 30.

5.3. ELKARTEEKIN BATERA EGINDAKO LANAK

UPV/EHUtik kanpoko elkarte batekin egindako lanaren deskribapena eta azterketa

Izenburua: modu argian eta zehatzean laburtu beharko du lanaren edukia. Hitz zehaztugabeak saihestuko dira izenburuan, eta ahalik eta laburrena, argiena eta informatzaileena izango da. Izenburuan laburtzapenak saihestu behar dira.

Laburpena: ondo sintetizatuko ditu lanaren nondik norakoak eta behar dituen atal guztiak izango ditu: sarrera, helburuak, jardueren plangintza eta emaitzak. Gehienez 300 hitz izan beharko ditu. Laburpenaren ondoren hitz gakoak jarriko dira, lana idatzita dagoen hizkuntzan (3-6 hitz gako)

Sarrera: gaia testuinguruan kokatuko da. Langune eta bidaide izan dugun elkarte eta jorratu dugun gaia aurkeztuko dira.

Gai hori zergatik den garrantzitsua azalduko da, bilaketa bibliografiko zabal batean oinarrituta, eta gaia diziplinaren barruan justifikatuko da.

Helburua: lanaren helburua modu argian, koherentean eta ondo definituta aurkeztuko da. Helburu espezifikoak planteatuz gero, helburu orokorraren barruan egon beharko dute, eta aztertu beharreko alderdiak programatzeko balioko dute.

Helburua edo helburuak bat etorriko dira Elkartearen asmoarekin.

Jardueren plangintza: jardueren plangintza aurkeztuko da (kronograma)

Ezarritako helburuen arabera egindako jarduerak aurkeztuko dira, modu egokian, egituratuan, antolatuan eta errealistan, dauden baliabideen arabera.

Emaitzak: planteatutako jardueretan oinarrituta lortutako emaitzak aurkeztuko dira, modu koherentean eta planteatutako helburuari/helburuei erantzuna emanez.

Hausnarketa-praktika: modu kritikoa hausnartuko da lanaren mugez, etorkizuneko ikerketa-ildoez/hobekuntza-jardueren garapenez, etab.

Egindako lanaren ondoriozko aberastasun/hazkunde pertsonalari eta profesionalari buruzko hausnarketa kritikoa egingo da.

Lan horrek elkartearentzat egin dituen ekarpenak komentatuko dira, eta ekarpen horiei buruzko gogoeta egingo da.

Garapen iraunkorrerako helburuak: egindako gradu-amaierako lanak garapen iraunkorrerako zein helbururekin edo helburuekin duen zerikusia deskribatu eta argudiatuko da. Atal honek 200 hitz inguru izan behar ditu.

Bibliografia: erreferentzia bibliografikoak eguneratuak eta egiaztagarriak izango dira. Bai emaitzetan, bai sarreran erabilitako artikuluen aipamenak eta erreferentziak jarri beharko dira. Erreferentzia bibliografikoak egiteko Vancouver edo APA estiloak erabiliko dira.

Bibliografian agertzen diren erreferentzia guztiek egon behar dute lanean aipatuta era egokian, aukeratutako estiloaren arabera.

Gomendatzen da gutxienez 15 erreferentzia bibliografiko erabiltzea, eta gehienez 30.

5.4. BPSO/OSAKIDETZAREKIN BATERA EGINDAKO LANAK

UPV/EHUtik kanpoko elkarte batekin egindako lanaren deskribapena eta azterketa

Izenburua: modu argian eta zehatzean laburtu beharko du lanaren edukia. Hitz zehaztugabeak saihestuko dira izenburuan, eta ahalik eta laburrena, argiena eta informatzaileena izango da. Izenburuan laburtzapenak saihestu behar dira.

Laburpena: ondo sintetizatuko ditu lanaren nondik norakoak eta behar dituen atal guztiak izango ditu: sarrera, helburuak, jardueren plangintza eta emaitzak. Gehienez 300 hitz izan beharko ditu. Laburpenaren ondoren hitz gakoak jarriko dira, lana idatzita dagoen hizkuntzan (3-6 hitz gako)

Sarrera: gaia testuinguruan kokatuko du. GrALarekin lotura duen gida eta gida horren helburuak aurkeztuko dira.

Landutako gaia zergatik den garrantzitsua azalduko da, bilaketa bibliografiko zabal batean oinarrituta.

Helburua: lanaren helburua modu argian, koherentean eta ondo definituta aurkeztuko da. Helburu espezifikoak planteatuz gero, helburu orokorraren barruan egon beharko dute, eta aztertu beharreko alderdiak programatzeko balioko dute.

Helburua edo helburuak bat etorriko dira GrALak erlazioa duen Gidaren helburuekin.

Helburuak zerikusia izan dezake kudeaketarekin, ebaluazioarekin, zabalkundearekin eta abarrekin.

Jardueren plangintza: jardueren plangintza aurkeztuko da (kronograma)

Ezarritako helburuen arabera egindako jarduerak aurkeztuko dira, modu egokian, egituratuan, antolatuan eta errealistan, dauden baliabideen arabera.

Emaitzak: planteatutako jardueretan oinarrituta lortutako emaitzak aurkeztuko dira, modu koherentean eta planteatutako helburuari/helburuei erantzuna emanez.

Hausnarketa-praktika: modu kritikoa hausnartuko da lanaren mugez, etorkizuneko ikerketa-ildoak/hobekuntza-jardueren garapenaz, etab.

Egindako lanaren ondoriozko aberastasun/hazkunde pertsonalari eta profesionalari

buruzko hausnarketa kritikoa egingo da.

Lan horrek dagokion Gidan egin dituen ekarpenak komentatuko dira, eta ekarpen horiei buruzko gogoeta egingo da.

Garapen iraunkorrerako helburuak: egindako gradu-amaierako lanak garapen iraunkorrerako zein helbururekin edo helburuekin duen zerikusia deskribatu eta argudiatuko da. Atal honek 200 hitz inguru izan behar ditu.

Bibliografia: erreferentzia bibliografikoak eguneratuak eta egiaztagarriak izango dira. Bai emaitzetan, bai sarreran erabilitako artikuluen aipamenak eta erreferentziak jarri beharko dira. Erreferentzia bibliografikoak egiteko Vancouver edo APA estiloak erabiliko dira.

Bibliografian agertzen diren erreferentzia guztiek egon behar dute lanean aipatuta era egokian, aukeratutako estiloaren arabera.

Gomendatzen da gutxienez 15 erreferentzia bibliografiko erabiltzea, eta gehienez 30.

5.5. KASU KLINIKO BATEAN OINARRITUTAKO ZAINKETA-PLANA

Kasu kliniko batean oinarritutako zainketa-plana (KKZP), zainketa-plan bat egitean datza, ikasleak praktika klinikoaren testuinguruan bizi izandako esperientzia, egoera edo problematika erreal baten idatzizko deskribapenetik abiatuta eta praktika hori aztertzeko helburuarekin.

KKZPa egiteak ez du esan nahi pazienteen historial klinikoa atzitu behar denik, ez datuak bildu behar direnik, ezta praktikan esku hartu behar denik ere. Aurkeztutako kasu kliniko guztietan anonimata eta sekretu profesionala bermatuko dira.

Izenburua: modu argian eta zehatzean laburtu beharko du lanaren edukia. Hitz zehaztugabeak saihestuko dira izenburuan, eta ahalik eta laburrena, argiena eta informatzaileena izango da. Izenburuan laburtzapenak saihestu behar dira.

Laburpena: ondo sintetizatuko ditu lanaren nondik norakoak eta behar dituen atal guztiak izango ditu: sarrera, kasuaren deskribapena, helburua, metodologia, zainketa-planaren garapena eta aportazioak. Gehienez 300 hitz izan beharko ditu. Laburpenaren ondoren hitz gakoak jarriko dira, lana idatzita dagoen hizkuntzan (3-6 hitz gako)

Sarrera: KKZPa garatzeko aukeratutako egoera deskribatuko da. Horretarako, kasu klinikoan jorratuko den problematikaren gune nagusia zehaztuko da labur-labur: arazoaren definizioa, testuingurua zehaztu eta zergatik den garrantzitsua azalduko da (adibidez, prebalentzia, lotutako aldagaiak, arazoaren garrantzia, praktika klinikoaren aldakortasuna, erizaintzako arretaren optimizazioa, etab.), baita zainketa-plan bat planteatu beharra justifikatzen duten gaiak ere.

Gainera, zer inguruetan aplikatuko den identifikatuko da (kasu kliniko zehatzari dagokionez).

Kasu klinikoaren deskribapena: modu zehatzean deskribatuko da tutoretzapeko praktika klinikotik ateratako kasua, non bizitako esperientziari, egoerari edo problematika errealari behatu zaion.

Aurkeztu beharko dira kasuaren datu orokorrak, balorazioa egin ahal izateko beharrezkoak direnak, miaketa fisikoaren datuak, elkarrizketa, balorazio-eskala...

Helburua: deskribatuko da era zehatzean erizainaren jarduera hobetzeko lortu nahi den

emaitza zehatza edo balizkoa.

Helburu espezifikoak planteatzen badira, helburu orokorra lortzen lagundu behar dute, eta lanaren atalak antolatzekeo balioko dute.

Metodologia: zainketa-plana egiteko berrikuspen bibliografikoa egingo da, helburu hauekin:

- aztertzea beste testuinguru batzuetan zer egin den, kasu honetan agertzen den esperientziari, egoerari edo problematikari erantzutekeo, edo
- zer diagnostiko, emaitza edo erizaintzako esku-hartze (NANDA-NOC-NIC)³ erabili diren arazo horren aurrean aurretik izandako esperientzietan, edo
- zer oztopo eta erraztaile dauden praktika klinikoan ikasleak aurkeztutako egoera hobetzeko, edo
- etab.

Zainketa-plana garatzea: sarrera gisa, labur-labur laburtuko da bilaketa bibliografikoaren ondorioz lortutako informazioa, zainketa-plana garatzeko erreferentzia gisa balioko duena.

Ikasleak garatutako zainketa-plana erizaintzako metodologiarekin egingo da, eta erabilitako taxonomiak (NANDA-NOC-NIC) eta horien arteko erlazioak (NNN) barne hartuko ditu.

Balorazioa: datuen bilketa objektiboan erabilitako balorazio-eskema adieraziko da, osasun-arazoak identifikatu, lehenetsi eta kategorizatu ahal izatekeo, eta ondoren baliozkotzeko.

Diagnostikoa: Erizaintzako Diagnostikoak (NANDA-I) egitea gomendatzen da. Diagnostikoak, tipologiaren arabera, lotutako faktoreekin eta ezaugarri definitzaileekin batera aurkez daitezke, halakorik balego.

Plangintza: espero diren emaitzak (NOC), esku-hartzeak (NIC) eta horiei lotutako jarduerak zehaztu eta lehenetsiko dira. Esku-hartzeen kasuan, jarduera zehatzak zehaztuko dira.

Gauzatzea: beharrezkotzat jotzen da zainketa-planerako ebaluazio-sistema bat diseinatzea, espero diren emaitzen lorpenari edo emaitza horiek lortzeko oztopo izan

³ NANDA diagnostikoa euskaratuta baldin badago (2015ekoa), euskaraz jarri. Ez badago euskaratuta, gaztelaniaz jarri.

daitezkeen elementuei buruzko informazioa emateko (erregistro hori taula/formulario moduan egingo da). Era berean, esku-hartzeen eraginkortasuna, ager daitezkeen kontingentziak eta horiei aurre egiteko modua ezagutzen lagunduko du.

GrALaren ekarpena: gaiari buruz hausnartzeko ideiak azalduko dira, adibidez: adierazi zer ekarpen egiten dion GrALak lehendik dagoen ezagutzari; adierazi zer inplikazio dituen GrAL honek asistentzia-praktikan, ikerketan eta politiketan; eta abar.

GrAL honek ikaslearen ezagutzari zer ekarri dion deskribatu eta hausnartuko da (lan-tipologia horrek zer ekarri dion eta lan-tipologia horrekin zer ikasi duela uste duen hausnartu ahal izango da).

Azterketa-lerro berriak proposatu ahal izango dira.

Garapen iraunkorrerako helburuak: egindako gradu-amaierako lanak garapen iraunkorrerako zein helbururekin edo helburuekin duen zerikusia deskribatu eta argudiatuko da. Atal honek 200 hitz inguru izan behar ditu.

Bibliografia: erreferentzia bibliografikoak eguneratuak eta egiaztagarriak izango dira. Bai zainketa-planaren garapenean, bai sarreran erabilitako artikuluen erreferentziak jarri beharko dira. Erreferentzia bibliografikoak egiteko Vancouver edo APA estiloak erabiliko dira.

Bibliografian agertzen diren erreferentzia guztiek egon behar dute lanean aipatuta era egokian, aukeratutako estiloaren arabera.

Gomendatzen da gutxienez 15 erreferentzia bibliografiko erabiltzea, eta gehienez 30.

5.6. IKERKETA-PROIEKTUA

Ikerketa-proiektu laburra

Izenburua: modu argian eta zehatzean laburtu beharko du lanaren edukia. Hitz zehaztugabeak saihestuko dira izenburuan, eta ahalik eta laburrena, argiena eta informatzaileena izango da. Izenburuan laburtzapenak saihestu behar dira.

Laburpena: ondo sintetizatuko ditu lanaren nondik norakoak eta behar dituen atal guztiak izango ditu: sarrera, ikerketa-galdera edo hipotesia, helburuak, metodologia, emaitzak eta ondorioak. Gehienez 300 hitz izan beharko ditu. Laburpenaren ondoren hitz gakoak jarriko dira, lana idatzita dagoen hizkuntzan (3-6 hitz gako)

Sarrera: gaia testuinguruan kokatuko du. Gai hori zergatik den garrantzitsua azalduko da, bilaketa bibliografiko zabal batean oinarrituta, eta gaia diziplinaren barruan justifikatuko da.

Ikerketa-galdera edo hipotesia: GrALarekin erantzun nahi den ikerketa-galdera aurkeztuko da, edo GrALaren abiapuntuko hipotesia.

Helburua: lanaren helburua modu argian, koherentean eta ondo definituta aurkeztuko da. Helburu espezifikoak planteatuz gero, helburu orokorraren barruan egon beharko dute, eta aztertu beharreko alderdiak programatzeko balioko dute.

Helburua edo helburuak bat etorriko dira ikerketa-galderarekin edo planteatutako hipotesiarekin.

Metodologia: argia, zehatza eta errealista izango da. Honako alderdi hauek guztiak edo batzuk zehaztuko dira, lanaren beharren arabera: azterketa-mota, lagina, aldagaiak, datu-bilketa, onartzeko/baztertzeko irizpideak, analisi estatistikoa, etika-kontuak, etab.

Emaitzak: datuak aztertu ondoren lortutako emaitzak aurkezten dira.

Emaitzak modu objektiboan, argian eta ordenatuan aurkeztuko dira.

Eztabaida: atal honetan lortutako emaitzak ebidentzia zientifikoarekin alderatuko dira, modu objektiboan eta sintesi-gaitasunarekin.

Modu kritikoan jasoko dira lanaren mugak.

Garapen iraunkorrerako helburuak: egindako gradu-amaierako lanak garapen iraunkorrerako zein helbururekin edo helburuekin duen zerikusia deskribatu eta

argudiatuko da. Atal honek 200 hitz inguru izan behar ditu.

Ondorioak: lortutako emaitzetatik abiatuta aurkezten dira ondorioak, modu koherentean eta ordenatuan, planteatutako helburuari/helburuei erantzuna emanez.

Beharrezkoa izanez gero, garatutako gaiari buruzko etorkizuneko ikerketa-ildoak ezarriko dira.

Bibliografia: erreferentzia bibliografikoak eguneratuak eta egiaztagarriak egingo dira. Emaitzetan, sarreran eta eztabaidan erabilitako artikuluei buruzko aipamenak agertu beharko dira. Erreferentzia bibliografikoak egiteko Vancouver edo APA estiloak erabiliko dira.

Bibliografian agertzen diren erreferentzia guztiek egon behar dute lanean aipatuta era egokian, aukeratutako estiloaren arabera.

Gomendatzen da gutxienez 15 erreferentzia bibliografiko erabiltzea, eta gehienez 30.